

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Ikusleen parte hartze handiarekin jokatu ziren Iturzaeta memorialeko finalak

2016ko ekainaren 17a, 486 zenbakia XI. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ITURZAETA MEMORIALA

Rock jaialdia eta Garagardo azoka, Sanjuanen atarikoak

Garagardo azoka, Iturzaeta memorialeko, Xistera partidak, Rock jaialdia,... hitzordu ugari Andoainen San Juan jaien aurreko asteburuan.

San Juan jaietako atarikoak ez dira gutxi, ezta eskasak ere. Ekaineko azken bi asteburuak kirola, kultura eta gizarte mailako ekitaldiz beterik datoz. **Zuena** elkarteko kideek ikasturte amaierako dantza emanaldia eskainiko dute ostiral honetan, Basteron. Bezperan hasita, eta iganderarte, **Garagardo azoka**ren edizio berria martxan izango da Arrate pilotalekuan. Lau



Elliot Murphy kantaria taldearen laguntzarekin zuzenean arituko da.

egunetan zehar, garagardotegiko menuaz eta edariez gozatzarekin batera kirol ekitaldi osagarriak antolatu dituzte Arrate pilotalekuan. Tartean,

zartagiarekin eta palarekin jokatu beharreko desafio deigarria.

Adiskidetasunetik haratago, kirol mailako hitzordu garran-

tzitsuak jokatu dira Andoaingo pilotalekuan. Hala nola, **Iturzaeta** memorialeko finalak edota **Xistera**ko partidak. Hitzordu horietara guztietara andoaindarrak hurbilduko dira. Bada bat inguruko eta urrutia-gokoen interesa pizten duena: **Rock jaialdia**. Bederatzigarren edizioa ospatuko dute larunbat honetan. Arratsaldeko 18:00etan hasita, rock and roll musika doinuak entzuteko aukera izango da Nafarroa plazan. Plazari izena ematen dion herrialdetik datoz **Balardi Balardi** euskaldunak. Eta haiekin batera nazioarteko hainbat talde. Ororen gainera, ikusle gehien erakarriko duena **Elliot Murphy** izango da.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Keler, Andoainen jaun eta jabe



Andoaingo areto futbol txapelketan, Keler Andoaino taldeak Donostiako Hogar Extremeño garaitu zuen finalan.

[KIROL ALBISTEAK, 7. ORRIALDEA]

Desafioa asteburu honetan



Zartapala izenarekin, zartagiak eta palak uztertuz elkarren aurkako lehian arituko dira Gaztelekukoak eta auzoetako jai batzordeetako kideen ordezkariek.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Urnietar asko Hiru Erregeen mahaian



Zanpatuz taldekoak dagoneko uztailaren hasierako irteera antolatzen hasi dira.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Erraustegiaren aurkako deialdiak Urnietan, Andoainen eta Donostian

Datozen egunetan bilkura ezberdinak iragarri dituzte Urnietan, Donostian eta Andoainen.

Igande honetan arratsaldeko 19:00etan hasita Urnietako San Juan plazan bilera irekia antolatu dute, erraustegiaren inguruan herrian bertan zer egin ez-

tabaidatzeko. **Herritar talde batek** gutuna helarazi dio Aiurri, deialdi horren berri emateko. Igandean bertan, eguerdian, **GuraSOS** taldeak bilkura deitu du Donostian. Bestalde, Andoainen, **Ipar Haizea** plataformak ekainaren 22ko plenoan erraustegiari buruzko mozioa aurkeztu duela iragarri du.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]



Martxoan Andoainen egin zen manifestazioaren irudia.

San Juan jaiak Andoainen Akelarrea Urnietan

Aiurri ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK

GEHIGARRI BEREZIA ERDIKO ORRIALDEETAN

"GABON TXIRRITA" ANTZEZLANA, IRAILAREN 10EAN DONOSTIAN ETA 23AN URNIETAN

Txirritari elkarrizketa Estampa astekarian

1936ko apirilaren 4an argitaratu zen Madrileko Estampa astekari kulturean Txirrita bertsolariari egindako elkarrizketa bat. Bera hil baino bi hilabete lehenago. Jose R. Ramosek egindako elkarriz-

keta hau da, hain zuzen ere, Txirritari ezagutzen zaion elkarrizketa bakarra. "Campeones Vascos" atalean argitaratua izan zen "Un poeta de 150 kilos" izenburuarekin.



"Campeones vascos" deituriko serieko hirugarren elkarrizketa izan zen ordurako 75 urte beteak zituen Txirritarena. Aurke eta ondorengo asteetan atal horretako elkarrizketetan atera ziren euskaldunak hauek izan ziren: Keixeta aizkolaria, Kortajarena harri jasotzailea, eta Patxi Bollos, Donostiako Antigua auzoko Istingorra elkarteko kidea, izenburuaren arabera, 236 kroketa jan ostean afaldu egin zuen gizona.

Elkarrizketan aipatzen da, Altzako Gazteluene baserrian bizi zen bertsolari handia, bi idik tiratako gurdi batean eramaten zutela batetik bestera. Gehienetan, sagardotegi edota tabernaren batera.

Poetei buruz galdetuta, Txirritak, hala dio: "Ez zait iruditzen bertsolari onak izango direnik aipatzen dizkidazun poeta horiek. Bertsoak kantatuta luzitzen baitu". Bere bizitzan zenbat bertso kantatu zuen ere argi uzten du Txirritak: "Errenteriako papeleran ere ez dago nik nire denboran kantatutako bertsoak idazteko adina paperik".

Pello Errota eta biek elkarri barkatu nahi ez, eta Andoai-



Txirrita artoa aletzen bere iloba eta honen semearekin, Altzako Gazteluene baserrian.

nen egindako "bertso gaupasa" ere kontatzen du. "Erromeri arratsalde bat zen, taberna baten atarian topo egin genuen, inguruak zirikatzen hasi ziren, eta gu hasi ginen elkarren aurka bertsotan. Bere lagunek gogoz txalotzen zuten, berdin egiten zuten nire lagunek bertso bat amaitzen nuenero. Tabernariak afaria prestatu zigun, jaten genuen bitartean kantatzen jarraitu genuen, sagardorik ere ez zen falta, ezta-

riari ondo funtzionatzeko. Eta horrela jarraitu genuen gau osoan zehar. Tabernariak itxi eta plazan ia bakarrik geratu ginenean, agurrean, Pellok kantatu zidan, dagoeneko izarrak ere lotara joanak zirela. Erantzun nion, jarraitzeko prest nago, izarrak lotara joan eta oiloak jada kaletik badabilta ere, baina ezta lehorrak ez dit uzten".

Jose R. Ramosek aipatzen du garaiko bertsolarien bertsoak ez daudela inon idatzita, baina, entzuleek gogoratu eta buruz errepikatzen dituztela.

Errenteriako Zamalbide auzoko Bonatxo tabernan (Albaiteruena bezala ere ezaguna) gertatutako pasadizoa ere jasotzen du. Dirudienez, han zebilen Txirrita dantza eta salto eta halako batean txorkatila bihurritu zuen. Eta lagunek eraman behar izan zuten etxera, aidean hartuta. Gisa hartan ikusitakoa, honela galdetu zioten etxe-koak: "Motel, zer egin dek? Zer pasa zaik? Eta Txirritak, bertso honekin erantzun zien:

*Albaiteruena sala demonio ortan,
demoniozko estropozo bat egin nuen bertan.
Demoniuak emen,
demoniuak an,
demoniuak beti gorputzaren bueltan,
demoniuak sasoi zeukaten demoniuetan.*

1936AN IRABAZI ZUEN BERTSOLARI TXAPELKETA

Txirritak irabazitako 1936ko bertsolari txapelketari aipamen labur bat egin ondoren, Pernando Amezketarraren aipamentxo batzuk egiten ditu, "El Quevedo vasco" bezala aipatu ere.

Txirritak bizitza lasaia izan zuela dio, "poeta baten bizitza, oihaneko poeta bat bada ere". Maiorazgo izateari ere uko egin ziola aipatzen du, ez zuela gogoko baserriko langintza eta nahiago izan zuela argintzan ikastea. Poltsikoan dirua zuean ez zela agertzen, ez etxera, ezta lantegira ere.

Nolatan ez zen ezkondu, eta inoiz andregairik izan al zuen galderari, honela erantzun zion Txirritak: "behin izan nuen andregai bat, ordubete iraun zidan. Donostiako Loialako Txomin-eneako erromerian izan zen. Berarekin paseatzen nindoan, eta erroskila batzuk erosi nizkion. Gogoan ez dudana bertsolari batek erromerian bat bota zidan, eta neska utzi eta bertsotara joan nintzen. Ez dakit zenbat luzatu zen bertso saioa, baina, berak soldadu batekin alde egin zuen, nire begiekin ikusi nituen nola zihoa zen paseoan nik erositako erroskilak janez".



Errenterian dago Txirrita baserria.

URNIETARRAK ANTZEZLANEAN



Mikel Izagirre, Juan Peñagarikano, Maxux Etxeberria, Aitor Iriondo eta Fermin Argiñarena aktore lanean izango dira Gabon Txirrita antzezlanean.

Antzezlanaren igande arratsaldean, antzerki tailerraren eskutik

Gorputzez eta arimaz, igandean Saroben

Urnietako Antzerki Tailerrak ikasurte amaierako emanaldia eskainiko du datorren igandean, ekainak 19, arratsaldeko 19:30etan hasita, Sarobe arte eszenikoen gunean. "Gorputz eta arimaz" antzezlanaren ikusleko doako gonbidapenak jadanik eskuragarri daude Saroben bertan, bulego ordutegian.

Antzerki Tailerreko kideek urtean zehar ondutakoa "Gorputz eta arimaz" izeneko ikuskizunean bildu dute, eta datorren igandean egingo den pase baka-rean, herritarrek ikusteko aukera izango dute. Ez dira bakarrik izango, beraiekin izango baitituzte, Buruntzantzán Batukada Taldeko kide batzuk, obraren hainbat momentutan zuzendariaren hitzetan, "Ikusle-
goa oso erraz sartuko da ikuskizunean. Posizio ezberdin batean aurkituko dituzte aktoreak, baina, ikuskizunak daukan presentzia eszenikoak eta indarrak segituan harrapatuko ditu. Kuadro eszeniko ezberdinez osatuta dago, baina, bakoitza banan-bana hartuta,

Hamazortzi eszenen elkartzetik sortutako antzezlanean, eszenografiako oso elementu gutxi erabiliz, aktoreek emozio ezberdinak helaziko dizkiete bertaratzen direnei.

Kike Santiago, tailerreko zuzendariaren hitzetan, "Ikusle-
goa oso erraz sartuko da ikuskizunean. Posizio ezberdin batean aurkituko dituzte aktoreak, baina, ikuskizunak daukan presentzia eszenikoak eta indarrak segituan harrapatuko ditu. Kuadro eszeniko ezberdinez osatuta dago, baina, bakoitza banan-bana hartuta,



Antzerki tailerreko kideak entsegu ugari egiten aritu dira azken egunotan.

*"Ikusle-
goa oso erraz sartuko da ikuskizunean. Antzezlanak duen indarrak segituan harrapatuko ditu"*
Kike Santiago

ulgarrria, simplea da. Narrati-
ba ere oso ulerterreza da".

AKTOREAK

Koro Berasategi.
Julio Nogales.
Pili Brandariz.
Mikel Agirregomezkorta.
Lupe Herrero.
Juankar Erasun.
Malen Pradera.
Xabier Odriozola.

Conchi Gonzalez.
Isidro Salinas.
Gentzane Belaustegigoitia.
Diana Duran.

PERKUSIOA

Esther Modia.
Mikel Ródenas.
Iwona Kopernicka.
Joxean Beldarrain.
Isabel Fernandez.

IRUDIAK

Asier Manso.

ZUZENDARIA

Kike Santiago.

Ekainak 19, igandea. 19:30.
Sarobe. Dohainik.

POSTONTZIA: ERRAUSTEGIAREN INGURUKO ASANBLADA IREKIA

"Zaborra ez da desagertzen, aitzitik eraldatu egiten da. Duela 13 urte etorkizuneko ate gisa erraustegi bat planteatzen zitzaigun. Momentu hartan Urnietako biztanleak zutitu eta bateratu egin ziren; hori horrela, erraustegia ez zen Urnietan ezta gainontzeko inongo herrietan ipini.

Kezkaturik gauden Urnietako herritarrak gara, izan ere, egun hartako etorkizun berbera aurkezten zaigu gaurko egunean ere, eta ez dugu orduko elkartasun bera nabaritzen.

Argi utzi nahi dugun kontua zera da: erraustegia etsai komuntzat duen mugimendu plural (pertsonek anitz biltzen dituen) bat gara. Gure aburuz, hondakinen errausteta sen onaren kontra doa eta hauek lirakeke ezberdintzen ditugun bi alderdiak:

"Ekainaren 19an 17:00etan San Juan plazara etortzea animatzen zaitugu. Bertan, kontu hau mahai gainean utzi eta har ditzakegun egitasmoen inguruan jardungo dugu"

- **Osasunaren aurkako ondorio bortitzak:** Medikuntza-ikerketen arabera erraustetaren igorpenek sistema-immunologikoan, arnas-sisteman, erreproduktzio-sisteman eta nerbio-sisteman kalteak eragin ditzakete. Baita minbizia sortu ere.
- **Ingurunean eragina:** Begi bistakoa denaz gain, igorpenek berotegi-efektua areagotzen duten gasak hartzen dituzte barne, zeintzuek gure ingurunearen ezaugarriak goitik-behera aldatzen dituzten.

- **Kostu handia:** Errauskailua biztanleentzako aukerarik garestiena da. Errauskailua berri eraikitzeko eta funtzioan mantentzeko, premiazkoa ez den xahubidea da.

Beste aukera batzuk badaude: Gure ingurunearekin eta osasunarekin garbiagoak eta errespetu handiagoa duten alternatibak aurkeztu dira.

Mugimendu hau aurrera eramateko ezinbestekoa da zure laguntza. Igandean arratsaldeko 17:00etan San Juan plazara etortzera animatzen zaitugu.

Ezbairik gabe zure harrera beharrezkoa da, ez egin dudarik. Hantxe itxarongo zaitugu. Ez dugu ke kaltegarrikerik nahi, ez hemen, ez Zubietan, ezta inongo tokitan ere. Denok batera, gure osasunaren alde!".

Herritar taldea

Irteera arrakastatsua



Zanpatuz mendi elkarteak irteera jendetsuak antolatzen darrai.

Zanpatuz Mendi Elkarteak Hiru Erregeen Mahaira irteera antolatu zuen aurreko asteburuan. 41 lagunek eman zuten izena, Linzako aterpetik gailurrera igotzeko, eta denak igo ziren Euskal Herriko gailur garaienera. Erritmo lasaian, taldea batzeko geldialdiak eginez, 3 ordu eta 45 minututan gailurrean ziren kide guztiak. Ordu erditxoko geldialdia eta gero, behearazko bidetara heldu aterpera. Han errekan hankak freskatu eta egarria asetu ostean, bueltako bidetara ekin zioten, Urnietara iluntzeko 20:30ak aldera iristeko.

DATORREN TXANGOIA

Uztailak 2-3 Huescako Lizarako aterpera ibilaldia antolatu dute. Izena emateko epea ekainaren 3an bukatu zen, baina batez ere aterpean ohe erreserba kopuru jakina egiteko, aldeztu aurretik. 55 lagunentzako tokia gorde da, eta oraindik hamabost leku daude libre. Kantoin dago zerrenda, eta ekainaren 20an itxiztat eman dute izen ematea. Lizarako irteeran Ibon de Estanes laka abiatuko dira lehen egunean, eta Bisaurin mendira bigarrenean (2.668 metro). Aukeraren, nekatuta dagoenak, Lizara-Gabardito zeharkaldia egiteko aukera izango du, Bisaurin igo gabe.

Odriozola garaile Huescan



Odriozola podiumaren lehen postuan.

Bizikleta.com taldeko **Olatz Odriozola** urnietarra "Open de España Cofidis" mendi bizikletako laugarren probako garailea izan da, "Gran Premio Valle de Benasque-Puro Pirineo" izenez ezagu-

tzen den lasterketan. Garrantzia handikoa da Huescako Castejon de Sos herrian lortu duena, favorito nagusi zen Rocio Martin granadarraren aurretik helmugaratu baitzen.

Nazioarteko topaketa



Aste osoan zehar, Salesiar ikastetxeko ikasleekin batera, Finlandiatik, Alemaniatik eta Poloniatik etorritako ikasleek

topaketa egin dute garrantzia handiko gai bati buruz jarduteko: "Bortizkeria gazteen artean: egoera eta erantzuna".

Udalaren eskertza

Udal gobernuko ordezkariak txakurren jabeekin batzartu ziren aurreko astean, Andoainen abiatu duten kontzientziazio kanpainari jarraipena emanez. Udalak ohar bidez bilerara hurbildu ziren herri-tarrei esker ona adierazi nahi die, "Udal gobernu honen

kezka txakur kaken arazoari behin-betiko soluzioa ematea da, eta bide horretan, praktika egokiak dituzten txakur-jabeekin elkarlanean aritzea funtsezkoa da. Bileran hizpide izan zena aztertu eta etorkizunerako ekimen berriak baloratuko ditugu".

Familia eguna ospatu zuten La Salle Berrozpen



Larunbatean egun osoan zear La Salle Berrozpe ikastetxeko irakasle, guraso eta

ikasleek familia eguna ospatu zuten. Gauerdia arte luzatu ziren ospakizunak.

Ikasturte amaierako jaia Aita Larramendi ikastolan



Aita Larramendi ikastolako aurreko igandean egin zuten ikasturte amaierako

ospakizuna. Ekitaldiz beteriko egitaraua egin zuten. Iru-dian, arratsaldeko jaialdia.

Mintzalagun egitasmoak



Mintzalagun eta Gurasolagun ekimeneko kideek jarduera ezberdinak antolatu dituzte ikasturteari amaiera eman aurretik. Ekainaren 6an, astelehenarekin, Ipar Martxa kirol jarduera berritzailea praktikatzen aritu ziren. Hastapeneko

ikastaroak herrikide ugari erakarri zituen. Bestalde, Gurasolagun ekimenean fin ari diren bi familia saritu nahi izan zituzten katiluak eta Aiurriko harpidetza bana oparitut. Ostegun honetan amaiera emango diote ikasturteari.

Deskontuak Salkin merkatarien elkarteko dendatan

Herri barruko erosketak saritzeko egitasmo berria

Andoainen erosketak egiteak abantailak dituela esatera datoz Salkin merkatarien elkar-tea eta Andoingo Udala. "Andoain txartela" sortu zutenetik kanpaina iraunkorra sustatzen ari dira, eta oraingoan erosketetan %1 eta %5 bitarteko deskontuak eskaintzen ari dira.

Kanpainaren hasieran txartela eskuratu ez zuenak oraindik ere aukera hori badu. Doakoa da eta ez da banketxez aldatu behar. Abantailez gozatzeko aukera erraza da.



Salkineko eta Udaleko ordezkariak azken kanpainaren aurkezpen ekitaldian.

UDAL ADIERAZPENA

AGUR ETA OHORE, MOHAMED ABDELAZIZ ERAKUNDE ADIERAZPENA

2016ko maiatzaren 21n, Mohamed Abdelaziz, Fronte Polisarioko Idazkari Nagusia eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren lehendakaria hil egin da. Andoingo Udalak Saharako herriaren eta bere eskubideen aldeko konpromisoa berretsi eta Mohamed Abdelazizen borroka eredugarria azpimarratu nahi ditu.

Mohamed Abdelaziz, Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren lehendakari eta Fronte Polisarioko Idazkari nagusiak, 1968an ekin zion bere herriaren askatasunaren aldeko borrokari, eta 1973 Fronte Polisarioko sortzean parte hartu zuen.



1978tik, Fronteko Idazkari Nagusia izan da eta Saharako herriaren eskubideen eta Sa-

hararen autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka eredugarriaren adierazle nagusi izan dugu. Bere herriaren eskubideen aldeko borrokalari nekazekin utzi gaituen egunean, Andoingo Udalak bere doluminak adierazi nahi dizkio Saharako herriari eta Fronte polisario osoari.

Bada ordua duela 40 urte hasitako deskolonizazio prozesua bururaino eramateko. Nazio Batuen Erakundeari eta nazioarteko komunitateari eskatzen diogu erreferendum bat egiteko bidea urratu eta erraztu dezatela.

Hori guztia dela eta, aste osoz, Saharako bandera Udaleko balkoi nagusian jarriko da. Sahara Hurria! Sahara Libre!

1949AN JAIOTAKOEN BAZKARIA



2016, ekaina



Gora jaia

GOIBURU GOLF CLUB



- Jatetxea
- Udako Ludoteka
- Golf zuretzat

JAIETAN ONDO PASA



Informa zaitez: 943300845 - Andoain

Akelarrea, San Juan suaren aurreko eta ondorengo ospakizun ikusgarria Urnietan

URNIETAKO SAN JUAN SUAREN INGURUKO OSPAKIZUNA GOITIK BEHERA BIZIBERRITZEN ARI DIRA AKELARREAREN ANTOLAKUNTZAREKIN. IAZKOAK IKUSLEAK HARRITU BAZITUEN, AURTENGO ESKAINTZA HOBETU EGIN BEHAR DUTELA DIRUDI.

Herritar talde bat aspaldi hasi zen lanean udako lehen hitzordu seinalatua prestatzeko. Laura Claudino sustatzai-learen hitzetan argi geratzen da ospakizuna lantzeko hartu duten ardura, urnietarrek behar bezala goza dezaten.

Zer moduz doaz aurtengo prestakuntza lanak?

Laura Claudino. Ekitaldiaren gidoia dagoeneko itxita daukagu. Musika eta dantza atalak prest ditugu, eta orain entsegu orokorretan hori guztia batera jarri behar dugu.

Iaz abiatutako bidetik jarraituko duzue, berrikuntzarik ba al dago?

L.C. Ezin dugu den-dena iragarri, baina urnietarrek jakin dezatela aurten San Juan plazatik abiatuko garela. Gualdiari hasiera emateko gunerik egokiena dela iruditzen zaigu. San Juan plazatik kalejiran abiatuko gara Buruntzantzan taldekoekin batera, Iurramendi kaletik aurrera egingo dugu Plazido Muxika plazara iritsi arte. Txanbolin taldea zain izango dugu. Baga Biga kantuaren doinupean, gure argitxoekin plaza argiztatu dugu. Iaz abiatutakoaren bidetik pauso bat haratago joango gara Sua piztuta, dantzan jarraituko dugu. Erromeri horretan ikusleagoa gurekin dantza egitera gonbidatuko dugu.

Iaz eman zenuten ezusteko atsegina izan al da aurrera jarraitzeko arrazoi nagusia?

L.C. Orokorrean denok bat gatoz iazko onena herritarren aldetik jaso genituen hitz onak izan zirela. Kanean zehar jendeak zoriontzeko geratzen gintuen. Nolanahi ere, denetariko erreakzioak izan ziren. Festarekin bat egin eta ospakizunak hazkundera izan dezan, festa hobetzeko jaso ditugun kritika konstruktiboak aintzat hartu dugu.

Talde ezberdinak elkarlanean ikustea pozgarria da...

L.C. Bai, eta bereziki hain ezberdinak direla ikusita. Alde batetik, tradizioan oinarria duen Txanbolin banda, bestetik Buruntzantzan batukada eta horiei guztiei baturik emakume piloak, guztiak dantzarako eta antzerkirako gogo handia duten Urnietako bizilagunak... Bada, den-denak aktore baten eta bi dantzarien esanetara jarri dira. Ez dakit auzartak edo inkontzienteak diren, baina haiei guztiei esker osatu da sorginen akelarrea. Meritu ikaragarria dute.

Noiztik ari zarete aurtengoa antolatzen?

L.C. Urrian elkartu ginen aurtengo edi-



Txanbolin taldeko musikariak San Juan sua piztu zenean.



Iazko antzezlaneko protagonista nagusietakoak.



Plazido Muxika plazan egin zuten iaz Akelarrea, lehen aldiz.

zioa prestatzen hasteko. Ideia garatu eta berehala entseguekin hasi ginen. Lantalde bakoitzak ikuskizunaren atal bat garatu du. Akelarrean dantza egingo dugunok bi talde osatu behar izan genituen, entseguetara hainbeste jende hurbiltzean dantzarako tokirik gabe geratu ginelako. Beraz, asteen hiru egunez entseatzen dugu, ordu eta erdiko saioetan. Berritort, sorginek egin duten ahalegina miresgarria da. Den-denak, gaztetxoek eta helduek. Ez da erraza Akelarrearen prestaketa eguneroko zereginetan barneratzeko denbora hartzea.

Egun asko dira, ordu asko. Lan handia da.

Zein ikuskizunetan oinarritu zineten Akelarrea sortzeko garaian?

L.C. Tolosako Akelarrean, hango adiskide asko ditut. Ezin izan nuen hangoan parte hartu lana zela medio, baina ahal izan nuenean Urnietan bertan sortzea bururatu zitzaidan, beste herriren batera ez joateko. Hori dela eta, orain arteko jaia antolatzen zuen Txanbolin bandarekin harremanetan jarri nintzen lehenik eta behin. Gerora Funky dantza taldeko kideak Buruntzantzan taldearen erritmora dantzan ikusi nituen behin, eta zuzenean haiengana joan nintzen. Ikuskizunean burubelbarri sartu ziren eta horrela, denen artean, ikuskizuna sortu zen. Ez du zerikusirik Tolo-

sakoarekin, urnietarren zigilua daramalako.

Beraz, gau magikoa izango da. Ikusi beharrekoa, iaz izan zirentzat edota hurbildu ez zirentzat...

L.C. Iazkoa ikusi ez zutenek herriarentzat landutako sorpresa ederra galdu zuten, eta aurtengoan hutsik ez egiteko esango nieke. Gau magikoaz gozatzeko ez da herritik atera behar.

Eguraldiari begira egon beharko da...

L.C. Sorginok dagoeneko haizeari eragiten dioten jainuekin harremanetan jarri gara. Euren artean bakean egon daitezela, ez dezatela ekaitza sortuz jaia oztopatu.



Udarari ongietorria emateko San Juan sua

SAN JUAN SUAK UDA HASIERA IRAGARTZEN DU ETA AURTENGOAN ERE EHUNKA URTEZ ERREPIKATU DEN OHITURA ERREPIKATUKO DA. ANDOAINEN JAIEN HASIERA IRAGARTZEKO ERE BALIAGARRIA IZANGO DA. SUAREN GAUA IRISTEAR DA HERRI ETA AUZO ASKOTARA.

ANDOAIN

22:30 Goikoplaza

San Juan jaietako lehen egunean dator suaren inguruko ospakizuna. Andoaindar askorentzat ekitaldi maitea da, Goikoplaza betetzeraino iristen dena. Suaren aurretik, iluntzeko 20:15etan hasita alkateak eta agintariek soka-dantza eskainiko dute.

22:00 Olagain txistulari bandaren kalejira San Juan zortzikoa joz. Ibilbidea Etxeberrieta, Zumea, Kale Nagusia, Goikoplaza: "Musikaren deiari jarraituz andoaindarrok Goikoplazara inguratuko gara urteko gaurik motzenari hasiera emateko *Sanjuan heldu da, sorgin beldurra galdu da...*"

22:30 Suziri, txalaparta eta kanpaierrepikarekin. Suaren inguruko dantza eta ohiko emanaldia Alberto Agirre eta Udal musika eskolako abesbatzak, Udal musika eskolako banda, Olagain txistulari banda, Soinuak musika eskola eta Urki dantza taldearen parte hartzearekin.

URNIETA

21:15 San Juan plaza

Iaz antolatu zuten Akelarrea, San Juan suaren ospakizunari bultzada eta indar berezia emate aldera. Ikusizuna udaletxearen paretik hasiko da, perkusio doinuaren kalejirarekin. Handik Plazido Muxika plazara hurbilduko dira Akelarreari hasiera emateko. Osagai ugari ditu gauak: Sorgin dantza, Akelarrea..., hori guztia zuzeneko emanaldiaz lagunduta.

AMASA-VILLABONA

Oinkari eta Oinargi dantza taldeetako kideek San Juan zortzikoa dantzatu dute, baita fandango eta arinarina ere. Eresargi abesbatzak ere emanaldia eskainiko du.

22:00 Sua piztuko dute Errebote plazan.



ZIZURKIL

Aspaldiko ohiturari jarraituz, San Juan bezperako ospakizunak egingo dituzte Zizurkilen. Zizurkil Behean, iluntzean ekingo diote festari.

20:00 Herritarrak plazan elkartu eta kalejira egingo dute, Elbarrenako su ezberdinetan barrena.

22:30 Sua piztuko dute. San Juan dantza dantzatu eta zizka-mizka batzuk janez, jaiari amaiera emango zaio.

Zizurkil Goian, San Millan eskolako guraso elkarteko kideek prestatu ohi

dute San Juan bezperako ekitaldia. Ekainaren 21ean bilduko dira sutan erreko dituzten sardeak egiteko, 16:00etan parkean. Suaren inguruan dantza egiteko entsaioak ere egingo dituzte, ekainaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan eta ekainaren 23an bertan, sua piztu aurretik.

22:00 Kalejiran joango dira herritarrak, plazatik, Lartingo belazetara. Sua piztu eta dantza saioa egingo dute suaren inguruan. Ondoren, txokolate beroa eskainiko diete bertaritzen diren guztiei.

Sua piztea beretsua da herri guztietan, ñabardurak ekitaldi osagarrietan daude: Urnietan Akelarrea, Asteasun txokolate-jatea,....

ADUNA

Adunan euskara sustatzeko helburuz sortutako taldeak izan du aurten San Juan bezperako ekitaldiak antolatze-ko ardura.

19:00 Maiatzaren 22an Adunako pilotalekuan grabatutako Lip-duba eskainiko dute Kultur aretoa. Adin guztietako dozenaka herritarrek parte hartu zuen euskararen aldeko grabaketa saioan. Ondoren, San Juan bezperako sua piztuko dute Uztartza atzeko belazean.

LARRAUL

Ekitaldi ezberdinak antolatu dituzte Larraulen. Arratsaldean bilduko dira herritarrak, sutara bota beharrekoak batzen. Gaua aurreratu arte luzatuko dute festa, elkarrekin afaldu ondoren. Larraulgo Ostatuan jarri dituzte gauzak prestatzen laguntzeko edota afarirako izena emateko zerrendak

16:30 Sutan erretzeko panpina egingo dute, elkarlanean.

17:00 Sua osatzen hasiko dira.

20:00 Haurren afaria. Ondoren, helduena.

22:00 San Juan sua piztuko dute.

ASTEASU

Asteasuko dantza taldeko hurrek dantza egingo dute suaren inguruan. Hala nahi duten herritarrek ere fandangoa eta arin-arina dantzatzeko aukera izango dute.

21:00 San Juan sua. Tradiziozko dantza. Asteasuko tradizioari eutsiz, suaren ondoren txokolatea jatea eskainiko dute.

Patxine jatetxea

Ondo pasa festetan!



Gure berezitasuna:
**EUSKAL SUKALDARITZA
ETA ETXEKO POSTREAK**
Errementari,1 - ASTEASU
Tel.: 943 69 10 25



Errenta Aitorpena Euskaraz

Batu eta Gehitu Etekin
Apirilaren 11tik Ekainaren 25era.
Euskara Lehenetsi!

Informazio gehiago: <http://euskara.buruntzaldea.eus>
f Albisteak elkarbanatu eta opariak eskuratu!

Andoain / Astigarraga / Hernani / Lasarte-Oria
Urnieta / Usurbil

Udal Euskara Batzordeak



Zuaznabar familia txalaparta tradizionalaren zaindaria, San Juan suaren iragarlea

EZINBESTEKO BIHURTU DA SAN JUAN SUAREN INGURUAN EGITEN DEN JAIAN. MARI KARMEN ZUAZNABARREK ETA BERE SEME PELLO URANGAK TXALAPARTAREN DEI HOTSAREKIN EMATEN DIOTE HASIERA GAU MAJIKOARI.

Udaletxeko balkoitik aritzen da bikotea, eta bere emanaldia entzun egiten dute ikusi baino gehiago, gau horretan Goikoplaza lepo jarri ohi duten andoaindarrek. Beharbada horregatik ez dira horren ezagunak Andoainen, herriko belaunaldi berrientzat batik bat. Nolanahi ere, aurtengo jaien pregoia egiteko hautagaien artean izendatu dituzte zenbait herritarrek, esker onez eta estimazioz, eta zerbait esan nahiko du horrek.

1988an edo lehenago ekin zion Zuaznabar familiak ohitura horri, Mari Karmenek adierazi duenez: "Aita (Pello) Lasartekoa izan arren Laborde lantegian topatu zuen lanpostua 1936ko gerra ostean, eta horrexegatik bizi ginen Andoainen; Txitxarrain baserriaren pareko etxean, hain zuzen. Txalapartaria zen gazte-gaztetatik, eta behin, Sanjuanetan jo zezan eskatu zioten. Nire semea hartu, eta halaxe hasi ziren biak. Hutsik egin gabe egin dio aurre Zuaznabar familiak Andoaingo konpromisoari, harrezkero".

2001ean hil zen Pello Zuaznabar. Bost bat urte lehenago-edo pattal jarri, eta bere alaba Mari Karmenek hartu



Mari Karmen Zuaznabar eta Pello Uranga ama-semeak aurten ere San Juan bezperako ospakizunean parte hartuko dute.

MUJIKA TOLARETXIPI ANAIK

MAPFRE

ANDOAIN

Aurrekontua eskatzerakoan zine sarrera bat dohainik

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Eskola kalea, 8 / ☎ 943 592 307 / Faxe: 943 300 161 / 20.140 ANDOAIN / e-posta: imujika@mapfre.com

Aterpe

Eguneko menua 10,50€

Gokoplaza, 7
943 117 986
672 725 978

Gosariak
Razioak
Pintxoak
Bokatuk
Plater
kombineatuak

Gorá Sanjuanak

JOSEBA
altzariak

Ondo pasa festak!

Kaletxiki, 10 • ANDOAIN • Tel.: 943 590 761

- Somier elektrikoak
- Latexko koltxoak
- Altzari osagarriak

FRANCISCO MENDIKUTE

HARATEGIA
URDAITEGIA

Kaletxiki, 15 ☎ 943 590 258 • ANDOAIN

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

- Esne produktuak
- Hautatutako kontserbak eta kalitatezko okela, etab.

STOP
LIBURUDENDA

Ondo pasa Sanjuanetan

Agustin Leitza, 27
943 591 603
20140 ANDOAIN
(Gipuzkoa)

ikasitza eta bizi izandakoa ez duzu ahaztuko

aek

UDAKO ESKAINTZA 2016

HABE azterketak
urrian: 1, 2 eta 3. maila

Azterketa prestatzeko ikastaroa uztailean

- NON: Andoaingo AEK euskaltegian
- NOIZ: Ekainaren 27tik uztailearen 29ra
- Ordulegia: 9:00etatik 12:30era.
- Asteleheneretik ostiralera
- Izena ematea: ekainaren 1etik 2tera
- Andoaingo Udalak diruz lagundua

Extremadura 5, behea. ANDOAIN
943 59 17 04
andoain@aek.org



Aitona eta biloba bikote gisa Goiburua auzoan, Andoaingo ikastolak 1988an ospatu zuten jaietan.

zior lekukoa. “Txalaparta guztizkoa zen berarentzat, eta bere tokia hartzeko eskatu zidan. Era horretan, aita eman-dako agindua betetzen ari naiz urtez urte; ohore bat da nire semearentzat eta biontzat hark eutsi zion tradizioari jarraipena ematea. Andoaingo herriak deitzen digun bitartean, prest egongo gara Sanjuan festari gure ekarpena egiteko, dakiguna eginez”.

Karmenek aitortu duenez, berak aitarekin jendaurrean inoiz ez zuen txalapartarik jo. “Bera osasunez gauza ez zenean hasi nintzen semearekin Andoaingen, ez lehenago. Urtero, San Juan iritsi aurreko egunetan, garajeaz azterketa egiten zigun: “zer moduz ari gea, aita?” galdetzen nion, zorrotza baitzen. Eta berak erantzuten: “ondo ari zerate, ondo”.

Ama eta semea, bi saskirekin, lau makilekin eta ohol bakarrarekin agertzen dira Andoaingo jaietan. Ohol bakarrarekin, azpimarratu nahi izan du Mari Karmenek, eta horren zergatia azaldu du: “txalapartaren forma tradizionalan aritu zen aita, eta guk ere berak egiten zuen eran egiten dugu”.

Ez da ahaztu behar Pello Zuaznabar, bere anaia Migelekin batera, txalapartaren eskola zaharreko ikonotzat hartu izan dela XX. mendean, eta izaten jarraitzen duela XIX. mendean.

TXALAPARTAREN AITZINDARIAK

Egun Euskal Herrian diren txalaparta-

riek eta txalaparta eskola ugariak ziurtatuta daukate txalapartaren osasuna eta etorkizuna... Baina ez da denbora asko txalaparta desagertzeko zorian egon zela, gezurra badirudi ere, Karmenek gogoratzen duen bezala. Egia esanda, XX. mendeko lehen hamarkadetan, leku bakanetan eusten zitzaion txalapartaren usadioari, Donostialdeko nekazari giroko familia eta etxeetan gehienbat; esate baterako, Lasarten, Karmeleren aitaren eta bere osaba Migelen Sausta (Sasoeta) baserrian.

Frankismoaren aurreneko urteetan ere nahiko ezkutuko gauza izan zen txalaparta jotzea, euskal kulturaren adierazpen gisa hartzen baitzen. Beldur ofizialari desafio eginez, hiru bat base-

rritan eutsi zitzaion tradizioari, txalapartaren historia liburuetan (Juan Mari Beltran, Txalaparta) adierazten denez: aipatu Saustan, eta baita Bilandegin (Martutene) eta Erbetegi-Etxeberrin (Amara). Hori bai, urtean zehar oso oso gertakizun zehatzetan astintzen zizuten makilak, mandioan eta sagardoa egiteko sagarraren biltzea bukatzen zenean batik bat. Erritual baten antza hartzen zuen emanaldi hark, aparteko gertakizuna familiaren bizitzan.

Poliki-poliki, Zuaznabar anaiek txalaparta baserriko mandiotik plazara eramateko pausoa eman zuten. 50eko hamarkadan izan zen hori, Zubietako euskal jaietan eta nekazari kutsua zuten antzeko ekitaldietan jendaurrean jotzen hasi zirenean. Egun haietako batean, Usurbilgo JosAnton eta Jesus Artze anaia txundituta geratu ziren zuaznabartarren txalapartaren hotsarekin. Handik ez denbora askora, Ez dok hamairu kultur mugimenduaren doinu modernoetako ttakun ttakun-a gehitu zioten.

Egundoko eboluzioa bizitu du txalapartak azken hamarkadetan, eta bide berritzaile horren lekuko izan zen Pello, bere bizitzako azken urteetan. Txalapartari itsatsitako aire berriak entzuten zituenean nahiko ondo onartzen zituela iruditzen zaio Mari Karmeni: “Behin Oreka TX-eko mutilak etorri zitzaizkion bisitan, disko bat besapean zutela; eskura jarri nahi izan zioten, bi anaiei txalaparta hotsa sartu baitzuten



Mari Karmen eta Pello, 2006ko Sanjuanetan.

diskoan. Aitak diskoa aditzen jarri, eta zera esaten zuen, “bai polita dela! Baina ez dakit, bada, txalaparta den hori, edo beste zer edo zer ote den...”. Esango nuke ulertzen zuela txalaparta gazteekin hartzen ari zen bide modernoa. Soinu txikiaren instrumentuarekin parekatzen zuen, hark ere eboluzionatu izan baitu denboran zehar. Tradizionala eta modernoa, biak elkarrekin bizi zitezketela, alegia”.

IRAKASLEA, NORNAHIRENTZAT

Txalapartak jarraipena eduki zezan izan zen Pello Zuaznabarrek bere bizitzan eduki zuen obsesiorik handienetakoa. “Ez dadila galdu! Horixe errepikatzen zuen maiz. Bere etxeko garajea txalaparta ikasteko gogoan agertzen zuen edonori irekitzen zion, berdin zitzaion kolore batekoa edota bestekoa izan. Andoaingo ikastolan ere aritu zen irakasten. Jende mordoia igaro zen bere eskuetatik azken batean, eta ez ditut denak gogoan. Baina tarteka, jendea hurbildu egiten zait esker onez. Hernanin urtero ospatzen den txalapartaren jaialdietako batean, gogoratzen naiz Katto Amilibiak nola hitz egin zion aurrean zituen txalapartariei, harrotasun puntu batekin: “zuek nahi dezuena esango dezue, baina neri Pello Zuaznabarrek erakutsi zidan txalaparta jotzen”.



Aita eta alaba txalaparta jotzen familia giroan, Sausta baserrian.



Esne Beltzak disko berriaren zuzeneko lehen aurkezpena Andoaingo jaietan egingo du

ANDOAINGO JAIETAN EHINGO DIOTE ESNE BELTZAKO EK UDAKO KONZERTU SORTARI. DISKO BERRIA AURKEZTEAZ GAIN, AURREKO LANETAKO KANTUAK ERE ESKAINIKO DIZKIETE ZALETUEI.

Maiatzean aurkeztu zuten **Esna2** diskoa prentsa agerraldian. Diskoa, ordea, ez da bakarrik jaio, izan ere, proiektu bikoitz baten bigarren alea baita. Iazko azaroan aurkeztu zuten lehendabiziko alea, Esna izenburupean. Abesti intimoagoak biltzen ditu taldeak lehen ale hartan; aldarrikatzaileagoa da, ordea, proiektua borobildu eta osatzen duen Esna2 diskoa.

Andoainen ekingo diote Esne Beltzakoek udako kontzertu sortari. Disko berria aurkezteaz gain, aurreko lanetako kantuak ere eskainiko dizkiete zaletuei. Andoaingo kontzertuaren ondoren, Loiun arituko dira uztailaren 2an eta ondoren etorriko dira Euskal Herriaren barrena eta nazioartean eskainiko dituzten emanaldi gehiago.

ZAZPI KANTU BERRI

Zazpi kantu biltzen ditu guztira Esna2 diskoak. Iñigo Cabacasen heriotza salatzen duen 'Hil zuten' kantuak zabaltzen du sorta. Aldarrikapen doinuei eutsiz, euskal presoaren egoera salatu eta disperzioaren aurka ari da 'Mugitu Harriak', eta euskararen eta ikastolen alde Herri Urrats jaiarako sortu zuten 'Jalgi' kantua. 'Askeak', 'Zaunkaka', 'Esna gauden artean' eta 'Agurrik ez' kantuek osatzen dute diskoa.

Taldeak hain bereak dituen reagea eta hip hop doinuei eutsi die disko honetan ere. Hitzei dagokienez, berriz,



Esne Beltzako kideak zuzenean arituko dira ekainaren 25ean, larunbatarekin, Nafarroa plazan.

Jon Garmendia 'Txuria' urnietarra izan da kantu guztietako hitzen egilea.

Estudioko seigarren lana dute Esne Beltzakoek eta lehen aldiz, taldekoak ez diren bi musika ekoizlerekin elkarlanean

an aritu dira. Batetik, Laurent Dupuy, bi Grammy irabazitakoarekin, eta bestetik Jeremie Garat biolontxelista eta sortzailearekin. Kolaboratzaile gehiago ere izan ditu Esne Beltza taldeak Esna2

diskoa ontzeko garaian. Esate baterako, Arianna Puella eta MS Maiko, Bad Sound System eta Glaukomako kideak, Oreka TX taldeko txalapartariak, Ciocarla fanfarea, etab,

Andoaingo LHI Lanbide Hastapeneko Ikastetxea

15-17 urte bitarteko gazteei zuzendutako prestakuntza programa:

- **Oinarrizko Lanbide Heziketa (Erdi-mailako ikasketekin jarraitzeko aukera)**
- **Ibilgailuak mantentzea (karrozeria)**

Matrikula ekainean zehar. Azken eguna: uztailaren 15a arte



Olagain auzoa, 7 (Opua pabilioia) - 20140 Andoain
Tel./Faxa: 943 300 816 - cip-lhi@andoain.eus



Iturzaeta, azken txanpa

ASTEURU HONETAN FINAL-AURREKOAK ARRATE PILOTALEKUAN; SAN JUAN EGUNEAN FINALAK.



Ibon Altuna andoaindarraren eskuin joko indartsua ikusteko aukera izango da ostiral honetan.

Joxe Mari Iturzaeta palista handiaren omenezko txapelketa azkenetara iristen ari da. Finalerdiak ostiral honetan jokatuko dira, 20:30etatik aurrera. Finala, ekainaren 24an jokatuko da, gaueko 22:00etan. Ostiral honetan, ekainak 17, honako bi final-aurrekoak erabakiko dira.

Lehenengo partida:
Garate-Ziskar/
Esnaola-Nicuesa.

Bigarren partida:
Altuna-Irigoyen/
Arozena-Mariñelarena.

Ibon Altuna andoaindarraren finalerdietarako sartu da, Irigoyenekin bikotea osatuz. Aurrelaria Gipuzkoako Herriarteko txapeladun geratu berria da Ando-

ain ordezkaturik, eta denboraldiari akabera bikaina emango lioke Iturzaetako finalera iritsiz gero. Euskal Herrian afizionatu mailan diren palistarik onenek osatutako zortzi bikotek ekin zioten txapelketari maiatzak zazpian. Bi talde osatu ziren zortzi bikoteekin, elkarren arteko ligaxka jokatzeko.

A taldea: Iradi-Labiano, Garate-Gordon, Plano-Bagazgoitia, Arozena-Mariñelarena.

B taldea: Mitxel-Mendizabal, DeElizondo-Belestin, Altuna-Andueza, eta Iburguren-Andonegi.

Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Lapurdiko pilotari bikainak denak ere.

Finala ekainaren 24an jokatuko da, gaueko 22:00etan. Jaialdia palako profesionalen arteko bigarren partida batekin osatuko da.

Txuleta jatea

AUZOETAKO JAI BATZORDEEN EKARPENA HERRIKO JAIEN EGITARAUAN. GOIKOPLAZAN EGINGO DUTE, IAZ BEZALA.



Auzo ezberdinetako kideak iazko txuleta jatean.

Auzoetako jai batzordeek herri bazkaria antolatu dute larunbat eguerdirako, azken urteetako ohiturari jarraituz. Ekainaren 25ean, larunbatarekin izango da, eguadiako 14:00etatik aurrera. Iaz bezala, Goikoplazan, San Martin elizaren ondoan izango da. Honako menua prestatuko dute antolatzaileek: txorizo egosia, entsalada mistoa, txuleta, gazta, irasagarra eta intxaurreak. Edateko, sagardoa, ardoa eta ura aukeran jarriko da.

Txartelak ekainaren 24a arte salgai egongo dira Txitibar eta Elizondo tabernetan; 18 eurotan. Eta egunean bertan erosteko asmoa duenak 25 euro ordaindu beharko ditu. 12 urte bitartekoentzat, berriz, bazkariaren prezioa 9 eurokoa izango da.

BAZKARIA GIRO EDERREAN

Giro ederrean egin dira aurreko urteetako bazkariak; tradizio bihurtzeko bidean da hitzordua, Andoaingo auzoetako jai batzordeek elkar hartuta antolatzen dutena. Gastronomiaren aitzakian, bi helburu lortu nahi ditu bazkariak: herriko festa zaleek elkartzeko topagune bat izatea, eta kale giroa indartzea.

Andoain ez da jaien faltan dabilen herria; zortzi ditu guztira, eta auzoetan burutzen dira horietako zazpi. Sanjuanen ostean datoz gehienak, baina bestearen atzetik: Kaletxiki, Karrika, Etxeberrieta, San Esteban, Buruntza eta Sorabilla, hurrenez hurren. Horien antolaketan buru-belarri dabil-tza jai batzordeak, ahalgindu dira astia hartzen elkarrekin biltzeko eta herriko jai bere ekarpina egiteko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza

Tindategia eta Konponketak

IZAR 943 24 93 97 / 603 419 190

• UR ETA LEHOR GARBIKETA

- LARRUAK
- ALFONBRAK
- MANTAK
- PLANTXA ZERBITZUA

Gora Sanjuanak!

ETXERAINOKO ZERBITZUA

Arrate plaza, 3 - ANDOAIN

LUR

Denak pol. zb. 207 ANDOAIN
Tel.: 943 592 851 - 605 763 940

FISIOTERAPIA
PILATES ZENTROA

GORA SANTAKRUTZAK!

bizar Igerategi
lizarribar

Zatoz jaietan!

AKER BELTZ

Taberna

Nafarroa plaza, 1-B
20140 ANDOAIN
☎ 943 300 846

San Juan jaiak Andoainen, ospakizunez beteta

OSPE HANDIKO MUSIKA TALDEAK, URTEURRENA BETE DUEN ELKARTEAREN TXUPINAZOA, KIROL MAILAKO HITZORDUAK... ANDOAINGO JAI EGITARAUA EKITALDIZ BETERIK DATOR.

Ekainak 17-27

Erakusketa Urigainen Udal ikastaroetako ikasleen eskutik: pintura, egur taila eta eskulanak. 2016ko San Juan jaiak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak.

18:00-20:00:

Ekainak 17, 20, 21, 22, 23, 27.

10:30-13:30 / 18:00-20:30:

Ekainak 18, 19, 24, 25, 26.

Ekainak 23, osteguna

18:00 Futbolin txapelketa Gazte Lokalean.

18:15 Kartel lehiaketako sari-banaketa ekitaldia Urigainen.

18:45 Kalejira: Buruhandiak, erraldioak eta Gora Kaletxiki txaranga.

19:00 Pregoia eta txupinazoa Ontza elkartearen eskutik.

19:30 Alberto Agirre eta Udal musika eskolako abesbatza San Martin parrokian.

19:30 Koadrilen arteko pintxo dastaketa Gazte Lokalean.

20:00 Salbe Gorena San Martin elizan, Alberto Agirre eta Udal musika eskolako abesbatzaren eskutik.

20:15 Alkatearen eta udalbatzaren Soka-dantza, Goikoplazan.

22:00 Olagainen kalejira San Juan zortzikoa joz.

22:30 San Juan suaren inguruko ospakizuna: Alberto Agirre eta Udal musika eskolako abesbatzak, Udal musika eskolako banda,



San Juan suarekin hasi eta Cavalfoc su ikuskizunarekin amaituko dira aurtengo jaiak.

Olagain txistulari banda, Soinuak musika eskola eta Urki taldea.

22:45 Agustin Leitza elkartearen danborrada. Kalejira herrigunean.

23:15 Nemux diskoteka Nafarroa plazan.

Ekainak 24, ostirala

09:30 Diana dultzaineroekin.

10:30-14:00 Artisautza azoka Goikoplazan.

11:00 Meza San Martin parrokian, Alberto Agirre abesbatzarekin.

12:00 Axeri-dantza Goikoplazan.

17:00-19:00 Haur jolasak Goikoplazan.

17:00-20:30 Artisautza azoka Goikoplazan.

17:30 Herri kirolak Goikoplazan: Donato Larretxea, Aratz Mugerza, Jose-

Ondo pasa Sanjuan jaiak!

Bitxikeriak Arropa

Nagusia, 6 ANDOAIN
943 59 12 24

Olloki

- Kafetegia
- Ogitartekoak
- Razioak
- Plater konbinatuak
- Pizzak

Irailetik ekainera, ostiral gauetan monologoak egiten ditugu hilean behin

Tel.: 943 300 603 Goikoplaza, 6-7 - Andoain

KEINU

- Festetako zapiak, blusak...
- Dantzarako arropa
- Era guztietako bordatuak (txapelak, banderak...)

Kale Nagusia, 12. ANDOAIN
637 283 224
keinuandoain@gmail.com
www.txapelasybordados.com
www.txapelaketabordatuak.eus

Gora Sanjuan eta Sanpedroak!!

ELIZONDO

FERRETERIA **TABERNA**

SAN JUAN JAI ZORIONTSUAK!

La Salle etorbidea, 1 - Andoain
Ferreteria: 943 59 03 02 Taberna: 943 59 28 02

ba Otaegi, Xabier Zaldia, Idoia Etxeberria, Santa Souza, Nerea Sorondo eta Itxaso Onsalo.

- 19:00** Kiki, Koko Eta Moko pailazoak: "Parranda tutiplen" elizaren ondoko belardian.
- 19:30** Bertsolariak Goikoplazan: Amaia Agirre, Miren Amuriza, Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Agin Laburu eta Aitor Mendiluze. Gai-jartzaile: Ion Beloki.
- 22:00** Iturzaeta txapelketako pala finala Arraten.
- 22:30** Zezen-suzkoa Goikoplazan.
- 23:00-00:30** Zo-Zongo taldearen "Psycho-Clown" ikuskizuna. Antzerkia, perkusioa, argia eta piroteknia ibiltaria Goikoplaza eta Nafarroa plaza artean
- 23:30-02:00** Tutan Come On eta Soziedad Alkoholika taldeak Nafarroa plazan.

Ekainak 25, larunbata

- 09:00-15:00** Usakume tiroketa Pagamendin.
- 11:00-13:00** Xakea Goikoplazan.
- 11:00** Haur eta gazte mailako eskuzko finalak Arraten.
- 12:00** Kantu kalejira, txalapartaz lagunduta.
- 12:15** Soinuak musika eskolaren kontzertua Goikoplazan.
- 14:00** Txuleta jatea Goikoplazan. Txartelak salgai 18 eurotan Elizondo eta Txitibarren. Egunean bertan 25 euro. Menua: txorizoa, entsalada, txuleta, gazta, menbriloa, in-txaurrak. Sagardoa, ardoa eta ura.
- 16:00** Zesta punta eta palako finalak Arraten.
- 17:00** Afizionatu mailako Dirt Jump lehiaketa Plazaolako bizikleta gunean.
- 17:30** XVII. Bizikleta Festa Goikoplazan. Opariak parte hartzaile guztientzat. Ondoren, apar festa.



Apar festa eta bizikleta festa ekainaren 25ean, larunbatarekin, Goikoplazan.

- 18:00** Pro mailako Dirt Jump lehiaketa Plazaolako bizikleta gunean.
- 18:30** Bikoteen Kros Mistoa, X. edizioa. Irteera eta helmuga Goikoplazan. Ibilbidea: 5 kilometro.
- 20:00** Udal musika eskolako bandaren kontzertua Goikoplazan.
- 22:30** Zezen-suzkoa Goikoplazan.
- 22:45** Mexikotik etorritako "Imperial Villa Hidalgo" mariatxi taldea Goikoplazan.
- 23:30-03:30** Esne Beltza eta Laket Nafarroa plazan.

Ekainak 26, igandea

- 10:30-13:30** 3x3 Saskibaloitxapelketa gaztetxoentzat, Nafarroa plazan. Izen-ematea Ganbara tabernan, ekainaren 25ean.
- 11:30** Musika eskolako ikasleen Mugaz taldea, konbo gaztea eta Azelain ballet elkartearen musika eta dantza emanaldia Goikoplazan.
- 12:30** Olagain txistulari banda eta lagunak Goikoplazan: Alberto Agirre; Urki; ikastetxeetako danborrariak; gitarrista eta akordeoilaria.

- 16:00** XXVII. Gipuzkoako Txirrindularitza itzuliaren irteera Goikoplazatik
- 16:30-20:00** 3x3 Saskibaloitxapelketa gazte eta helduentzat, Nafarroa plazan. Izen-ematea Ganbara tabernan, ekainaren 25ean.
- 18:00** Gora Kaletxiki txaranga Goikoplazan eta inguruan.
- 18:15** XXVII. Gipuzkoako Txirrindularitza Itzuliaren helmuga Goikoplazan.
- 18:30** Kale antzerkia: "La Conga" Goikoplazan.
- 19:30-21:30** Zumba Masterclass Goikoplazan.
- 22:30** Bakartxo & Joseba dantza eskolaren erakustaldia Goikoplazan: Tangoa, salsa, funky, kizomba, sabel dantza eta zumbafusioa.

Ekainak 27, astelehena

- 11:30-13:30** Haur parkea Goikoplazan: Jokoak, puzgarriak, ludoteka,...
- 13:30** Adinekoei harrera udaletxe aurrean.
- 14:00** Laurogei urteko aiton-amonon bazkaria Basteron.
- 16:30** Funky eta ballet emanaldia Goikoplazan.
- 17:00- 19:30** Haur parkea Goikoplazan: Jokoak, puzgarriak, ludoteka,...
- 18:00** Haur danborrada. Ibilbidea: Zumea plaza, Kaleberria, Kale Nagusia eta Goikoplaza.
- 19:15** Irrien Lagunak: "Ane eta Piratak Parrandan" haur berbena, Goikoplazan.
- 19:30** Kontzejupeko pilota partidak Goikoplazan.
- 22:30** Cavafoc kalejira. Juanita Alkain plazatik Goikoplazaraino.

Egitaraua, argazkiak, bideoa: www.aiurri.eus



ANDOAIN
AITA LARRAMENDI IKASTOLA

Txistoki pasealekua, z/g
20140 - Andoain
Tel.: 943 593 525
andoain@ikastola.eus
www.andoainikastola.eus



IKASTOLEN ELKARTEA

JAIETAN
ERE
EKIN
EUSKARAZ

San Joan jai zoriontsuak opa dizkizuegu





Añaxa

Eguneko menua
Plater konbinatuak
Razioak
Plater bereziak
Hitzartutako menuak ...

Ondo pasa jaietan!

Martin Ugalde, 4-behea
943 50 83 52



arruti

gozotegia

Etoko obradorea:
pastelak, pastak,
ogji bereziak..

Zumea 18, 943 593 777 – 20140 ANDOAIN
arrutigozotegia@hotmail.com

Ondo pasa festetan!

arruti



Nazioarteko eta Euskal Herriko rock doinuak

ANDOAINGO ROCK JAIALDIA DAGOENEO ERREFERENTZIA BILAKATU DA EUSKAL HERRIKO ETA ESTATU MAILAKO EGUTEGIAN. NAFARROA PLAZA, AURTENGOAN ERE, HANDIK ETA HEMENDIK ETORRITAKO MUSIKAZALEEKIN BETEKO DA, EKAINAREN 18AN.

Flamin Groovies, Eilen Jewell, The Muffs, The Undertones, The Pretty Things, The Blasters, The Nomads, DM3, Johnny Powers, The New Christs, The Chesterfield Kings edota Straitjackets talde ezagunak izan dira Andoaingo Rock jaialdiaren aurreko edizioetan. Pixkanaka musika jaialdien egutegian bere tokia hartzen ari da, EA-Eko inguruko erkidegoetatik geroz eta bisitari gehiago jasoz. Dohainik da, eta hori pizgarri modukoa da rockzaleentzat. Dagoeneko bederatzigarren ediziora iritsi da, eta aurtengoan ere antolatzaileek kartel ederra osatu dute. Guztien gainera Elliot Murphy estatu-batuarra nabarmendu beharra dago. Parisen finkatuta, Euskal Herrira etorzen den aldiro aretoak bete egiten ditu. Akustikoan etorri izan da azken urteetan, Oliver Durand musikariak lagunduta. Oraingoan, ordea, talde eta guzti igoko da Nafarroa plazako oholtzara. Luxu bat rockzaleentzat. Rock musika garaikidearen ikonoetakoa baita.

ELLIOTT MURPHY & BAND

Disko ugariren egilea, idazle lanetan ere mugildu izan da. "Literatura nire erlijioa da, baina rock and rolla nire adikzioa da", berea da ezagun egin den esaldia. Musikari nekaezina, mundu osoan zehar emanaldiak eskaintzen jarraitzen du.

BLUE ASH

70eko hamarkadan bi disko egin zituzten, denbora igaro ahala ahaztu ez direnak. Iaz disko horietatik kanpo geratutako kantuak disko bikoitzean argitaratu zituzten. Power pop musikan erreferentzia dira.

HILLBILLY MOON EXPLOSION

Rockabilly doinuak Suitza aldetik. Lau disko eta zuzeneko indartsua da euren aurkezpen txartela.



Elliot Murphy kantari ezaguna taldearekin batera zuzenean arituko da Nafarroa plazan.

DEADBEAT POETS

Blue Ash taldearekin harreman zuzena du. Fran Secich taldeko buruzagia da, ibilbide luzeko musikaria.

SPLIT SQUAD

Bostongo taldeak 2012an lehen diskoa grabatu zuen REM edota Gang of Four taldeetako musikarien laguntzarekin.

BALERDI BALERDI

Euskal musikagintzan aski ezagunak eta maitatuak, euskaraz abestuz kantu sorta ederra sortu dute.



Nafarroa plazan rockzaleez beteko da larunbat honetan ere.



Toño Muro Balerdi Balerdi taldeko kantaria. Zuzenean Petti kantaria aritzen da.

Pala eta zartagi desafioa Garagardo Azokan

OSTEGUNEAN HASI ETA IGANDERA BITARTE GARAGARGO BEREZIEZ ETA GARAGARDOTEGIETAKO MENEZ GOZATZEKO AUKERA IZANGO DA ANDOAINEN. LEHEN EGUNERAKO DESAFIO INTERESGARRIA ANTOLATU DUTE ARRATEN, PALA ETA ZARTAGIAREKIN.



Luis Mari De Miguel-Kristina Rodriguez desafioan arituko den bikotea.



Estebe Lopez de Muniain-Irati Loiarde desafioan arituko den beste bikotea.

GaragardoAzokaren edizio berria desafio politarekin abiatuko da. Garagardoazaleak lehen edariak dastatzen ari direla, Arrate pilotalekuan bi bikote nor baino nor lehian arituko dira zartagiekin eta palekin. Azokari hasiera emateko pizgarri bikaina da, kirola eta umorea uztartu nahi dituenak. Zartagiekin Luis Mari De Miguel eta Estebe Lopez de Munain arituko diren bitartean, palari helduta jokoan sartuko dira Kristina Rodriguez eta Irati Loiarde. Teniseko pilota erabilita partida atsegina izango da.

Desafioan aurkari izango dira Garagardo Azoka antolatzen duten bi eragile nagusiak. Alde batetik, **Gazteleku** pilota eskola eta, bestetik, auzoetako jai batzordeak. De Miguel eta Rodriguezek Gazteleku ordezkatu dute, eta De Muniainek eta Loiardek herriko auzoetako jai batzordeak. Jokoa eta txantxa uztartzen duen lehiaz

gain, maila handiko partidak izango dira asteburu osoan zehar. Ostiralean Iturzaeta memorialeko finalak jokatu dira. Larunbatean, berriz, profesional mailako zesta pilotariak arituko dira.

Aurten Gazteleku pilota eskolako kideekin batera, antolaketan lanetan murgildu dira auzoetako jai batzordeak. Garagardoak zerbitzen eta otorduak prestatzen eta zerbitzen, beraz, auzoetako eragileak ibiliko dira. Larunbatean eta igandean bazkariak eskainiko dira.

OLAJAUN GARAGARDOA

Aurtengo Garagardo Azokan Andoaingo tabernaren izena daraman garagardoa dastatu ahal izango da, Barañainen bertan ekoizten dena.

Flandriako garagardo baten botila kopuru mugatua ere eskainiko dute. Botila bereziak dira Eskoziako, Kataluniako, Flandriako eta Euskal Herriko banderak daramatzalako.

ANDOAINGO IV GARAGARDO AZOKA



EKAINAK 16-17-18-19

ARRATE FRONTOIEAN











Osteguna 16
18:00 - Azoka irikiera
19:30 - Pilota desafioa

Ostirala 17
18:00 - Azoka irikiera
20:30 - Iturzaeta Memorialeko

Larunbata 18
13:30 - Azoka irikiera
16:00 - Zesta kinielak gazteak
18:00 - Zesta partidu profesionalak

Igandea 19
13:30 - Azoka irikiera
Larunbata eta Igandean bazkariak emango dira

Antolatzaileak:  Babesleak: 

ZAPIAIN Aiurri
DISTRIBUCION, S.L.



Ostegunetik igandera Garagardo Azokaren edizio berria Arrateren kanpoaldean. Arratsaldeko 18:00etan irekiko dituzte ateak, azokako lau egunetan.



Sanpedroetan guk lan eta zuek jai

BATZUEK JAI EGITEKO BESTEEK LAN EGIN BEHAR. HALAXE DA, BESTEAK BESTE, PATXINE ETA ITURRI ONDO JATETXEETAKO EDOTA KABELA KAFETEGIKO LANGILEEN PATUA SANPEDROETAN.

Hirurak ere lanean arituagatik, ordea, gustura aritzen dira festa giroan murgilduta.

GERTUTIK

1. Zer moduz moldatzen zarete herriko festetan lanean?
2. Lan erritmoa biziagoa izango da. Zein da zuentzat unerik gogorrena?
3. Lan egiteaz gain, festetako ekintza-aren batean murgiltzen al zara?

JON OTAEGI

Iturri Ondo jatetxea

1. 30 urte daramat langintza honetan eta ez dit eragozpenik sortzen festetan lan egin beharrak. Baina nik bakarrik guztia egitea posible ez denez, lantaldea behar dut eta zailagoa izaten da festetan taldea osatzea. Denborarekin, gazteek asteburu eta jai egunak lanetik saihestu nahi dituztela konturatu naiz. Hainbeste urte eta gero, bizitzeko era bat da niretzat nire lana. Hala behar, bestela aspaldian utziko bainuen.

2. Biziagoa baino, tentsio handiagokoa esango nuke. Sanpedroetan, taberna nahiz jatetxearen ardura bideratu eta hornitzaileen gainean egoteaz gain, festetako kanpoko hainbat ekitalditan ere erantzun behar izaten baitugu. Erritmoari eusten badiogu ere, tentsioa handiagoa izaten da eta desgastea sortzen du horrek.

3. Ez dut festarako denborarik izaten. Gaztea nintzela, pilota partidetan



Iturri Ondoko Jon Otaegi.



Kabelako Begoña Mujika.



Patxineko Olaia Aranburu.

parte hartzen nuen eta gauzez ere ateratzen nintzen pixka bat. Baina gero eta ardura gehiago hartu, denbora gutxi izaten dut festarako. Lanean zentratzen naiz.

BEGOÑA MUJIKA

Kabela kafetegia

1. Barraren bestaldean gustura aritzen gara lanean. Festetan pozik ikusten da jendea eta poz hori transmititu egiten denez, pozik aritzen gara gu ere. Momentu batzuetan, jende asko batera etortzen denean, estuasuna ere sentitzen dugu. Baina haiek gustura badaude, gu ere bai.

2. Normalean baino jende gehiago etortzen da festetan, bertako nahiz kanpoko. Batzuk, festen aitzakian, baita

herria ezagutzera ere. Eguerdia edota ekitaldi baten ondorena izaten da momenturik gogorrena; denak gose eta egarri etortzen baitira orduan.

3. Ez naiz izatez asteasuarra. Senarra eta seme-alabak bertakoak direnez, ni baino parte hartzaileagoak dira. Lan egitea, festan ibiltzea baino gehiago egokitzen zait Sanpedroetan, baina plazan trikitixa entzuten badut, dantza saioa egitera ateratzen naiz, baita seme-alaben emanaldiak ikustera ere.

OLAIA ARANBURU

Patxine jatetxea

1. 16 urteak betez geroztik, Sanpedro festetan lanean aritu izan naiz beti eta dagoeneko ohituta nago horretara. Parrandatxoren bat egiten dugu

tarteka, baina lanean ordu asko igaro behar izaten dugunez, lan egin eta gero deskantsua eskatzen du gorputzak.

2. Festetan laneko erritmoa biziagoa izaten da, asteburuko eguerdian bereziki. Baina, afariak hasi eta bukatu arteko garaia izaten da gogorrena niretzat, askotan afari bukaerako kafeak tabernan parrandan dabilzanekin batera egokitzen baitira. Indartsu abiatzen ditugu festak, baina egunak aurrera joan ahala, nekea handitzen joaten da.

3. Koadrilen bazkarira urtero joaten naiz, baina kalejira hasterako etortzen naiz lanera. Ez dut ekintzetan parte hartzeko denborarik izaten, nahikoa lan izaten baitugu tabernan eta jatetxean.

Iturri - Ondo
Jatetxea
 Jai zoriontsuak igaro
 Tel.: 943 691 331
 20159 ASTEASU

JOXEAN
 HARATEGIA
 Baserriko haragia
 Urdaitegi berezia
 Bulandegi
 bidea, 1. Zizurkil
 943 696 242

Ondo pasa festetan!
TRANSPORTES
akunza
 Eguneroko zerbitzua Bizkaiara
 609 434 910 - 609 401 884 - Tel.: 943 693 212 - Faxe: 943 694 924
 www.transporteslakunza.com - info@transporteslakunza.com
 A Industriegunea - 16. pabilioia, 20159 ASTEASU
 52 P.K., 20150 AMASA-VILLABONA



Ondo pasa jaietan!

Ekainaren 23tik
uztailaren 3ra bitarte
Sanpedroak
Asteasun



Asteasuko Udala

Abizena Mujika, pasioa musika

MUSIKA BARRU-BARRUTIK BIZI DUTE MUJIKA-DUMALL FAMILIAKO KIDEEK. HAINBAT EMANALDI ESKAINI DUTE DAGOENKO ELKARREKIN ETA GUSTURA MURGILDUKO DIRA FESTETAN, MUSIKAREN DOINUPEAN.

Xabin Mujika aitak txistua eta zeharkako flauta jotzen ditu, biolina Izarbe alabak; pianoa, bateria eta gitarra elektrikoa Iñaki semeak eta klarineta jotzen ikasten ari da Iosu seme gazteena. Etxean bertan musika banda osatzeko osagai paregabeak dituzte, beraz. Etxetik datorkie musikarekiko zaletasuna, hiru belaunalditan zehar gutxienez, etenik izan ez duena. “Amak pianoa irakasten zuen etxean eta pianoaren inguruan hazi eta hezi gintuzten anai-arrebok txiki-txikitatik”, adierazi du Xabinek. Belarria lantzen eta musikarekiko irrika pizten lagundu zieten umetatik jasotako piano doinu haiek. Umetan hasi zen Xabin solfoa ikasten eta 7 urterekin txistua jotzen ikasteari ekin zion; 19rekin, berriz, zeharkako flautari. “Gerora utzi egin nuen flauta eta orain berreskuratu dut berriz ere. Ondorioz, musika-tresna jotzen ikasi eta, ikasketak edo beste arrazoiren batzuegatik, uztea erabaki duten seme-alaben aurrean ez arduratzeko esango nieke gurasoei. Oinarria badutenez, aurrerago ere eutsiko diotela hala nahi dutenek”. Xabinek umetan Andoaingo bere etxean jasotakoa, bere seme-alabekin partekatzen du egun eta, aita bezala, hiru seme-alabak ere oso musika zaleak dira.

MARIJULIRI ESKAINITAKO EMANALDIA GOGOAN

Musika tailer eta solfeo eskolak jasotzearekin batera, 8 urte zituela hasi zen Izarbe biolina jotzen ikasten. Andoaingo Bastero musika eskolako ikasketak bukatuta, Donostiako kontserbatorioan ari da egun eta izugarri gustatzen zaio bai entsegatzea eta baita emanaldietan parte hartzea ere, “momentuz zaletasun gisa ikusten dut, baina ikasketak bukatutakoan, biolina irakastea gustatuko litzaidake etorkizunean”, adierazi du. Iñaki anaia, Bastero musika eskolan ari da, baina Donostiako kontserbatoriora pausoa ematekotan da epe laburrean. Pianoa eta bateriaz gain, gitarra elektrikoa jotzen ikasten ari da aurten eta etorkizunean ingeneritzako ikasketak



Iñaki, Xabin, Izarbe eta Iosu Mujika, Eleuterio Tapia trikitilariaren eskulturaren aurrean.

egitea gustatuko litzaiokeen arren, argi du musikarekin lotuta ere zer edo zer egin nahiko lukeela. Iosu da etxeko txikiena eta klarineta jotzen ikasten ari da. Berriki, Andoaingo Bandako kideekin batera kalejiran hartu du parte, gatzetxotatik kaleko girora egokituz.

Etxean euren kabuz jotzea atsegin dute eta baita laurak batera aritzea ere, nahiz eta ordutegiak bateratzea nahiko zaila egiten zaien. Joan zen maiatzean, Larramendi Bazkunak antolatuta, Marijuli Azkueren oroimen ekitaldian aritu ziren laurak batera. “Gustura aritu ginen. Emanaldi berezia izan zen guretzat, gure laguna baitzen Marijuli”, azaldu du Izarbek. Basteroko Piano jaialdian ere, emanaldi goxoa eskaini zuten laurak batera.

FESTETARAKO GOGO BIZIZ

Sanpedro festak iristeko gogoz daude laurak ere. Izarberi kontzertuak ikus-

tea gustatzen zaio gehien eta aurten pozarren dago, oso gogoko duen Vendetta taldearen emanaldia izango delako. Iñakiri ere kontzertuak ikustea eta lagunekin elkartzea gustatzen zaio gehien. Festen baitan, trikitixa taldeko kideekin batera, gitarra elektrikoa joaz hartuko du parte musika emanaldian. Iosuk ez du hutsik egingo krosean, ezta umeen eguneko puzgarri eta jolasetan ere. Musika ikasle izateaz gain, bertso eskolako ikasle ere badenez, bertsoa abestuz hartuko du parte txupinazoan. Xabinek, berriz, festetan erabat kalean egotea atsegin du, herritarrekin lasai egonez. Txupinazo egunean bertan egingo dute txistulari taldeko kideek lehen kalejira, baina San Pedro eguna bereziki, oso lanpetua izaten dute. “Goizean goiz hasten gara txistua joz, gero Udal korporazioarekin goiko elizara joaten gara. Meza bukatu ondoren, Soka-dantzan jotzen dugu txistua

eta bazkalondoren, herriko musikarien kalejirari ematen diogu hasiera”. Kalejira berezia izan ohi da txistulari taldeko kideentzat. Bi hilabete lehenago hasi ohi dira mozorroa prestatzen eta giro polita sortzen dute herrian. Aurten gainera, berrikuntzak izango dira, txistulari taldeko kideak, trikitixa taldekoak eta Kantu Jira taldekoak elkarrekin arituko baitira.

ASTEASUKO TXISTULARI TALDEA

Musikari askoren habia izan da Asteasu herria. Besteak beste, trikitilari ezagunak eman ditu eta baita txistulari ugari ere. Xabin eta Mari Juli Azkuek herrian zenbat txistulari ote zegoen elkarrizketa izan ondoren, sortu zen egun hogeit bat kide biltzen dituen Asteasuko txistulari taldea. Geroztik, urtero-urtero, hutsik egin gabe hainbat ekintzatan hartzen dute parte, bereziana txistularien eta herriko musikarien kalejira delarik.



**Gora Sanpedroak!
Ondo pasa jaietan!**

ADOS MUNTAIK, S.L.
Asteasuko Industrialdea
A gunea-15, 20159 Asteasu
Tel.: 943 694 384
Faxa: 943 694 375
info@adosmuntaiak.com
www.adosmuntaiak.com



Okindegia - Kafetegia - Gozotegia
KABELA

ONDO
PASA
SANPEDROTAN!

Nagusia, 2 - Tel.: 943 696 405 - 20159 ASTEASU

Jaietako pregoilari

DUELA HOGEITA BOST URTE 'ZENBAT ZEATE?' TALDEKO KIDEEK PLAZARATU ZUTEN SANPEDROETAKO LEHEN BLUSA.



Zenbat zeate? koadrilako hainbat lagun, argazkian.

Beste herrietako festetan bezala, Asteasukoetan koadrilaren arteko blusarik ez zegoela ohartuta, herriko gazte talde bat elkartu eta Sanpedroetarako blusa egitea erabaki zuten orain 25 urte, herriari bizitasuna eman nahian. 'Bai ala ez' izena jarri zioten lehen urtean, baina bigarren urterako izenarekin zalantzak sortu, eta geroztik 'Zenbat zeate?' izenarekin hartzen dute parte festetan. Hasiarako urteetan 30-40 kidek osatzen zuten taldea, eta egun erdiak badira ere, orduan bezain gogotsu daude herriko festak noiz iritsiko zain. Belaunaldi ezberdinetako herritarrak biltzen dira taldean, 38 urtetik 54ra bitartekoak, hain zuzen; "herri txikietan ez baikara belaunaldika elkartzen, afinitateengandik edota lagunak eta haien ezagunak batuta baizik", adierazi dute. Taldekideek orain 25 urteko blusa bera mantentzen dute, "originala" eta harriztuta daude halako erabilera eman ondoren, nola jarraitzen duten bizirik oraindik ere. "Sanpedroetan zehar, blusa lotarako kentzen dugu juxtu-juxtu", adierazi dute umoretsu. Festazaleak dira eta herriko jaiak hasi eta bukatu bitartean, orduero izaten omen da blusako kideren baten ordezkaritza kaleetan. "Goizeko ekintzata-

tik hasi eta hurrengo goizera arte, taldeko kideren bat izango da kalean. Ekintzetan eta parrandan, txanda librean ibiltzen gara", diote.

PREGOILARI

Azken urteotan, merezimenduren baten gatik, herriko talde edota pertsonaren baten bota ohi du jaietako emateko suzuria. Aurreko urteetan, eskolako guraso elkartea, emakume taldea, San Isidro eguneko antolatzaileak, elikagai bankuko kideak edota Juan Tapia trikitilaria izan dira pregoilariak. Aurten, bada, 'Zenbat zeate?' taldeko kideen txanda izango da. "Ilusioa egin digu gonbidapenak eta giroa sortu du taldekideon artean, aurten benetako sorgina jaitziko ote dugun erabakitzen ari gara", azaldu dute barrezka. Lehen gauean blusakideen afaria egin ohi dute Patxine jatetxean, "gure sedean", baina aurten agian bazkaritik hasia ere ez zaie ideia txarrena iruditzen, udaletxeko balkoira gogo biziagoz iristeko. Zalantzarik gabe, pozarren iritsiko dira eta "hemendik 25 urtera, blusak 50 urte egindakoan, berriz ere gustura igoko ginatete", aurreratzearekin batera, herritar gazte nahiz helduei blusa gehiago egin eta festan parte hartzeko deia luzatu diete.

Gaueko bus zerbitzua

UZTAILAREN BIKO GAUEAN ORDURO BUS ZERBITZUA TOLOSA-ASTEASU JOAN ETORRIAN

Irteerak Tolosatik

Tolosa	Anoeta	Iruya	Villabona	Zizurkil	Asteasu
00:00	00:10	00:12	00:20	00:25	00:30
01:00	01:10	01:12	01:20	01:25	01:30
02:00	02:10	02:12	02:20	02:25	02:30

Irteerak Asteasutik

Asteasu	Zizurkil	Villabona	Iruya	Anoeta	Tolosa
00:30	00:35	00:40	00:48	00:50	01:00
01:30	01:35	01:40	01:48	01:50	02:00
02:30	02:35	02:40	02:48	02:50	03:00
04:00	04:05	04:10	04:18	04:20	04:30
05:00	05:05	05:10	05:18	05:20	05:30
06:00	06:05	06:10	06:18	06:20	06:30
07:00	07:05	07:10	07:18	07:20	07:30
08:00	08:05	08:10	08:18	08:20	08:30

Uztailaren 2an, larunbatarekin, gaueko autobus zerbitzu berezia jarriko dute Asteasurako joan-etorriak eroso egin ahal izateko. Gauerdian jarriko dute martxan zerbitzu berezia eta igande goiza arte egongo da martxan. Gauerdian hasita, Villabonatik Asteasurantz doan lehen gaueko autobusa eta beste bi zerbitzu egongo dira geroago, ordubeteko tartearekin. Itzulerarako, 00:30etan aterako da lehen autobusa Asteasutik, eta 08:00ak arte martxan egongo da zerbitzua. Inguruko herrietako jendea Asteasuko jaietara erakartzea da zerbitzuaren helburu nagusia. Aldi berean, guztion segurtasuna ere bermatuko du, izan ere, autorik hartu beharrik gabe, jaietara gozatzeko aukera eskainiko baita.

Saldiasen agurra

EKAINEKO AZKEN EGUNEAN ASTEASUKO JAIETAN ZUZENEAN ARITUKO DIRA EGAN TALDEKOAK.

Xabier Saldias Egan taldeari lotuta dago, bata eta bestea bereizi ezinak direlako. 1970ean Urolan abiarazi zuten musika taldea, eta lehen hamarkada haietan puntako taldea izatera iritsi ziren. Jendetza mugitzea lortu zuten, baita disko ugari saltzea ere. Euren aitortu bezala, "Aitzindariak izan ginela esan genezake, ordu arte txistua eta trikitixa bakarrik ziren euskaldunak, eta gu gitarra, teklatu eta bateriarekin beste erromeria mota bat jorratzen hasi ginen; rocka, baltsak, rantxerak..., denetik jotzen hasi ginen". Gaur egun jaietako animatzaile dira gehiago, haur eta familiei bideratuta, eta plazak ez zaizkie falta.

Sanpedroetan Asteasuko taula gainera igoko dira, **Xabier Saldiasen** agurrarekin batera. Azken sasoi honetan taldekide ditu **Imanol Iribarren** Ando-



Urtetan azken urteetan jaietako amaiera emateko emanaldia eskaintzen zuten Egan taldeak.

aingo teklista, **Idoia Uralde** billabonatarra kantari lanetan, **Roxi Zubizarreta** dantzaria eta **Ruben Viejo** bateri-jotzailea. Haiekin batera zuzenean arituko da Asteasuko jaietan. Xabier Saldias euskal berbenaren historia bizia da.

ONDO PASA JAIETAN!

Goine

esneki naturalak

SASKAGOIN KOOPERATIBA ELKARTE TXIKIA
Gorua - Goiena baserria, z/g - 20159 ASTEASU
Tel.: 647 697 535 / 615 296 613
saskagoin@gmail.com Faxe: 943 690 528

GURE PRODUKTUAK

Gaxure
"katzur krema"
BERRIA

Gazta ruloa

Gazta biguna

Ondutako Idiazabalgo gazta ketua

Gaztazarra

Mamia

Gazta freskoa

Jogurt naturala eta azukreztatua

Jogurta basafritu eta marrubiekin

Ospakizun ugari Asteasun, datozen egunetan

EKAINEKO AZKEN ASTEAN OSPAKIZUNEKIN HASI ETA UZTAILAREN HIRURA BITARTE LUZATUKO DIRA OSPAKIZUNAK. INGURUKO HERRIETAKO EK UZTAILAREN BIKO GAUEAN ORDUROKO BUS ZERBITZUA IZANGO DA, TOLOSA-ASTEASU JOAN-ETORRIAN.

Ekainak 23, osteguna
21:00 San Juan sua. Tradiziozko dantza.

Ekainak 25, larunbata
18:00 Dantza emanaldia Asteasu, Larrraul eta Adunako dantza eskolekin. Oinkari dantza taldea.

Ekainak 28, asteartea
17:30 Frontenis txapelketaren finala. Gizonezkoak.
19:30 Txupinazoa Zenbat zeate? blusa taldearen 25. urtemugan. Ondoren kalejira: txistulariak, buruhandiak eta erraldoiak.
21:45 Mus eta txintxon txapelketak: Izen-ematea.
22:15 Zozketa.
22:20 Txapelketen hasiera.

Ekainak 29, asteazkena
San Pedro Eguna

10:00 Diana.
11:00 Meza nagusia. Ondoren Elizmendin: Soka-dantza, hamaiketakoak, Asteasuko pilota eskolako txapelketako finalak.
Aurrebenjaminak:
Iker Izagirre-Iraia Calvo.
Benjaminak:
Aimar Segurola-Manex Usabiaga.
18:00 Kalejira herriko musikari, buruhandi eta erraldoiekin. Ibilbidea: Plaza, Agiñazpi, Kale Nagusia eta Kale Berria.



La Jodedera zuzenean arituko da uztailaren 3an, Sorginaren igoeraren aurretik.

22:30 Bertso saioa plazan. Bertsolariak: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Maialen Lujanbio eta Amaia Agirre. Gai jartzailea: Haritz Mujika. Ondoren herriko musikariak kalean zehar.

Ekainak 30, osteguna
Jubilatuaren eguna

11:00 Meza. Hamaiketakoak, Aitzondo elkarteak.
13:00 Herri kirolak: Harrijasotzaileak. Aizkolariak.

14:30 Jubilatuen bazkaria frontoian, Telleria eta Lizaso bertsolariekin.
18:00 Trikitixa eta pandero jotzaileen emanaldia.
19:30 Arkupeko IX. Pilota txapelketa, finala. Ondoren, Egan taldea.
22:30 Egan taldea. Xabier Saldiasen taldearen agurreko saioak dira.

Uztailak 1, ostirala
Haurren eguna

11:00 Haurren krosa, marrazketa lehiaketa.

12:00-14:00 Haur parkea frontoian.
14:00 Bazkaria.
15:00-17:00 Haur parkea.
17:30 Zezenak eta poneyak.
20:00 Kalean txaranga. Mozorroen kalejira.
21:30 Herri afaria.
23:30-01:00 Kalean txaranga.
00:00 DJ festa.

Uztailak 2, larunbata

14:30 Koadrilen arteko bazkaria.
16:30 Plaza bete poz haur musika eta dantza emanaldia.
18:00 Ikurriñari omenaldia.
18:30 Burrenba elektrotxaranga. Ondoren Gaztetxeak antolatuta, barrikotea eta DJ Bull txosnako karpan.
23:30 Rock kontzertuak: Otuz, Vendetta, Izeberg. Txosnatan DJ Bull.

Uztailak 3, igandea

11:00 Patata tortila txapelketa.
Pilota txapelketetako finalak: Esku pilota.
Alebinak:
Ugaitz Usabiaga - Gorka Huitzi.
Emakumeen pala, alebinak:
Jone Arrieta - Iraia Otegi.
Helduak.
12:30 Sagardo dastaketa: Sarasola, Etxeberria, Zabala, Aburuza eta Urdaira.
18:00 Herrikoen arteko herri kirolak.
19:30 La Jodedera taldea plazan.
21:00 Festen amaiera. Sorginaren igoera.

OGI ZURI  **OGI GOXO**

OKINDEGIA, S.L.
Lizarrate-erria, 32. Elizmendi auzoa. ASTEASU ☎ 943 691 896

OGI-ZURI
Bulandegi bidea 1-3. ZIZURKIL ☎ 943 691 000

OGI-GOXO
Kale Nagusia, 26. AMASA-VILLABONA ☎ 943 693 294

FESTAK ONDO IGARO!

Ogi berezi eta artesanak - Etxerainoko zerbitzua

Javier Iragola
HARATEGIA - URDAITEGIA

Ondo pasa herriko festak!!

Kale berria, 5. ASTEASU
Tel.: 943 691 932 - 649 477 210

- Bereztasunak: Bertako haragia eta etxean egindako txerriak.
- Etxean prestatutako janariak.
- Enkarguz: Arkumea, oilaskoa eta txerrikume erreka.
- Etxerainoko banaketa zerbitzua.

AMC
MECANOCAUCHO

Festa zoriontsuak opa dizkizuegu!

Industrialdea Parc. 35 A
E-20.159 ASTEASU - Gipuzkoa
Tel.: 943 696 102 - Faxes: 943 696 219

ERRAIKUNTZAK - ASFALTOAK
BIXENTE OTEGI LIZASO, S.L.

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Elizmendi, 44
20159 Asteasu (Gipuzkoa)
Tel./Faxes: 943 690 178
bixenteotegi@terra.com



KIROL ALBISTEAK

Zarauztarren aurka garaile



Poz ugari jasotzen ari da Buruntzaldea IKT taldea azken asteetan. Aurreko asteburuan Allurralde kiroldegiko igerilekuan Zarautz taldearen aurkako erronka irabazi zuen. Argazkian ikus daiteke taldekideen poza.

Buruntzaldea IKT:

Larunbat goizean Lasarten "Lasarteko XXVII Saria" ospatu ondoren, arratsaldean infantil, junior eta absolutuek "II Erronka" jokatu zuten Andoainen Zarautz Balear taldearen aurka.

Bi talderen arteko norgehiagoka zen Andoaingoa. Proba bakoitzean talde bakoitzak neska bat eta mutil bat aurkeztu behar zuen, eta proba bakoitzean lortutako puntuen arabera txapeldua erabakitzen zen.

Lehiaketaren erdian hartutako atsedendian, Andoaingo taldeak 65 puntu zituen eta Zarautzeko taldeak, aldiz, 34. Buruntzaldea nagusi zen arren edozer gauza gerta zitekeen bigarren zatian, eta horrexegatik andoaindarrek lehian gogor jarraitu zuten. Azkenean, gure taldea erabat nagusitu zen. Amaieran 126 puntu erdietsi zituen eta Zarautzrek, aldiz, 72.



Tartean, gure igerilariak zenbait marka eder egiteko gai izan ziren eta asteburu honetako Gipuzkoako txapelketari begira gauza politak egiteko moduan direla erakutsi zuten. Guztira 18 marka pertsonal lortu zituzten eta taldeko bi errekor berri ezartzea lortu ere bai.

Adin tarte guztietako lehiak beraz, denboraldi amaierara gerturatzeko ari garen honetan. Saria bikain atera zen eta igerilariak ederki gozatzeko aukera izan zuten. Lerro hauetatik zorianak denoi!

Infantil, junior eta absolutuek oraindik ere entrenatzen jarraitu beharko dute. Asteburu honetan Gipuzkoako Txapelketa edo Gipuzkoako Saria izango dute denek Azpeitian edo Legazpin, eta datorrenean junior eta absolutu mailakoek Euskal Herriko Txapelketa Gasteizen.

Infantilek berriz, hiru aste barru izango dute Euskal Herrikoa. Galdakaon ospatuko da. Hortik aurrera, Espainiako Txapelketa dituztenek prestaketa saioetan jarraituko dute eta besteek ondo merezitako oporraldia.



Pala ikuskizuna Sorabillan herri arteko txapelketan



Keler taldekoak garaipenaren sari guztiekin. Behean, hirugarren postuan sailkatutako Academia GF taldeko kideak.

Sorabillako frontoia txiki geratu zen bi partida ikusgarri ikustera hurbildu zirentzat.

AINARIKA-IZARNE 25
OLATZ-RAKEL 13

Emakumezkoetan Ainarika-Izarnek 25-13 garaitu zuen Olatz-Rakel bikotea. Txapel-dunek uste baino errazago menderatu zituzten aurkariak, eta txapelketako pilotaririk onenak izan direla erakutsi zuten beste behin.

Lehiatuagoa izan zen mutilen neurketa. 25-23 azken emaitzak adierazten duen

eran, ederki kostatako garaipena lortu zuen Iñaki-Loidi bikoteak Andoni-Arrutiren aurka.

Ia beti atzetik joan ziren markagailuan, baina azken unera arte irabazteko itxaropenari eutsi zioten azpitxapel-dunek. Atzean beti bezain seguru jokatu zuen Andonik, nahiz eta orkatila bihurrituta aritu behar partidaren erditik aurrera; Arrutik ere bizkor jardun zuen arratsalde osoan. Eskarmentu eta abilezia handiko bikotea osatzen dute biek, aurreko urtetan txapelak irabaziz erakutsi izan duten eran. Nola-

nahi ere, Loidirekin egin zuten topo, aparteko jokalariekin alegia. Sorabillako frontoia urtetan ezagutu duen pala jokalaririk onena izango da ziurrenik, eta gaur egun ez dago garaituko duenik. Are gutxiago atzealdea ondo babesten dion Iñaki bezalako bikote batekin jokatzeko badu.

Ana Carrere alkatearen, Gorka Herranz Irizar lantegi-ko ordezkariaren eta auzoko haurren eskutik jaso zituzten denek sariak.

Argazkiak: Aiurri.eus





KIROL ALBISTEAK

Keler taldea areto futbol txapelketako irabazlea



Keler taldekoak garaipenaren sari guztiekin. Behean, txapeldun-ordeak.

Keler taldea garaile atera zen Hogar Extremeño Donostiaren aurka igande goizean jokaturako finalean. Andoaindarrek garaipen sendoa lortu zuten: 7-1. Finaleko atezainarik hobereena Keler taldeko **Ibon Irastusta** izendatu zuten eta finaleko jokalaririk hobereena **Victor**, Hogar Extremeñokoa. Hala ere, **Urtzi Azpirozek** (Keler) beste behin ere goletzaila onenaren saria jaso zuen.



Larunbat honetan Xistera partidak Arrate pilotalekuan

Euskal Herri mailako Xistera Zirkuitua Andoainera dator. Aurreko asteburuan Durango-ko Ezkurdi pilotalekuan aritu ondoren; asteburu honetan Zirkuitua Gipuzkoara helduko da, Andoainera, hain justu.

**EKAINAK 18, LARUNBATA
16:15ETIK AURRERA**

Gazte eta nesken mailako finalen aurretik, Gaztelekuo klubeko alebin mailako puntistek erakustaldia eskainiko dute.

Gazte mailari dagokionez, Mutrikuko Danok Bat klubeko Goixerri eta Olazagasti titulua eskuratzen saiatuko dira Luze-



an taldeko Etcheberry eta Montamaten aurka.

Nesken mailan, berriz, Nahia Calvo-Jane Arreitunaindia Eneritz Lizardi-Izaro Arberren aurka lehiatuko dira.

Nagusi mailako lehia erabakigarriaren protagonistak Narbarre-Ekhi (Donostia-Gasteiz) eta Urrutxua-Ubilla (Gernika-Berriatua) izango dira. Berdinketa handikoa izango dela dirudi.

Amonarriz hirugarren Gipuzkoako txapelketan

EKAINAK 11, LARUNBATA

Gipuzkoako txapelketa. Urretxu

Sailkapena:

1. Unai Iribar (Limousin-Oriako)
2. Xabier Murgiondo (Ulma)
3. Ander Amonarriz (Andoaingo)



Alebin-infantilak. Asteasu

Alebinak:

1. Dani Fursenko (Andoaingo)
2. Markel Galparsoro (Ampo)
3. Igoien Pikabea (Andoaingo)

Infantilak:

1. Laiene Pikabea (Andoaingo)
2. Aritz Aiestara (Ampo)
3. Maddi Rodriguez (Andoaingo)

Eskubaloia astea Urnietan



Ostegunean eta ostiralean Street Handball partidak jokatu dira, arratsaldean. Ekainaren 22an, asteazke-

narekin, Montse Puche eta Xabier Mikel Errekondok hitzaldia eskainiko dute.



3x3

SASKIBALOI TXAPELKETA

EKAINAK 26

NAFARROA PLAZA

10.30 Mistoia 7/9 Urte
Mistoia 10/14 Urte
16.30 Mistoia 15/18 Urte
Mistoia 18tik Aurrera
(APUNTATZEKO: GANBARA TABERNA)

ANTOLATZAILEA



BABESLEA



Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-NURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etzez etzeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

EKAINAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

- "Alicia a traves del espejo", zine denboraldiaren amaiera. Larunbata, 18. 19:30, 22:00. Igandea, 19. 19:30. Astelehena, 20. 19:30, 22:00.

Bilkurak

Donostia

- GuraSOS taldeak deituta, Antiguoko tuneletik abiatuta. 12:00 Antiguu. Ekainak 19, igandea.

Urnietan

- Erraustegiari buruzko biltzar irekia. 17:00 San Juan plaza. Ekainak 19, igandea.

Antzerkia

Urnietan, Sarobe

- Antzerki tailerraren emaldia: "Gorputz eta Arimaz". 19:30 3 euro. Ekainak 19, igandea.

Azokak

Andoain, Arrate

- Garagardo Azoka. 18:00etatik aurrera. Larunbatean eta igandean bazkariak. Ekainak 16-19.

Irteera

Urnietan

- Zanpatuz taldeak antolatuta, Huescako Lizarako aterpera ibilaldia. Kantoin dago zerrenda, eta ekainaren 20an itxiztat emango dute. Izen ematea: Ekainak 20. Irteera: Uztailek 2-3.

Jaiak

Andoain

- Sanjuanak. Gehigarri berezia, erdiko orrialdeetan. Ekainaren 23tik 26ra.

Jaialdia

Andoain, Sarobe

- Zuena taldearen jaialdia: Zumba, sevillanak, dantza garaikidea,... 19:00 Bastero. Ekainak 17, ostirala.

Musika

Andoain

- Andoaingo rock jaialdia: Elliott Murphy, Balerdi Balerdi,... 18:00 Nafarroa plaza. Ekainak 18, larunbata.

Plenoa

Andoain

- Udalaren batzaraldia. 19:00 Udaletxea. Ekainak 22, asteazkena.

San Juan sua

Urnietan

- Akelarrea, San Juan sua. 21:15 Plazido Muxika. Ekainak 23, osteguna.

Andoain

- Suziri, txalaparta eta kanpai errepikarekin. 22:30 Goikoplaza. Ekainak 23, osteguna.

Erakusketak

Urnietan, Lekaio

- Argazki Digital Rallyaren argazki erakusketa. Azken eguna: Ekainak 24.

Andoain, Urigain

- Udal ikastaroetako ikasleen artelanen erakusketa. Ekainak 17-27.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: Arzallus. Aita Larramendi, 26. Urnietan: Gomez, Hernani. Nagusia, 14.
- Gauez: Urrutia, Hernani. Etxeberri, 1. Florida. Ekainak 18, 19.

Dantza

Andoain, Sarobe

- Azelain ballet eskolaren emanaldia. 17:15 Bastero. Ekainak 18, larunbata.
- Markel Figeroa taldearen dantza garaikidea. 11:30 Bastero. Ekainak 19, igandea.

Kultur Astea

Urnietan

- Denda Berriren eskutik: Ekainak 16, osteguna: 17:00 Mahai jokoak, toka. Ekainak 17, ostirala: 18:00 Dantzaldia. Ekainak 18, larunbata: 09:20 Bus irteera Kioskotik Donostiako hiru ondartzak lotzen dituen ibilaldi neurtuan parte hartzeko. Ondoren bazkaria Amaran. Ekainak 19, igandea: 08:00 Irteera Nafarroako Milagro herrira. Gerezian festa ospatzen da bertan. Bazkaria han bertan. Ekainak 21, asteartea: 18:00 Bingo saioa. Ekainak 22, asteazkena: 18:00 "El peli" antzerkia. Ekainak 23, osteguna: 18:00 Dantzaldia. 22:00 San Juan sua.

Kanpaina

Andoain

- Salkin taldearen "Andoain txartela" erabilera sustatzeko kanpaina. Erosketak egiten dituztenen artean %1 eta %5arteko beherapenak. Dohainik da.

Ikastaroa

Andoain, AEK

- HABEko azterketak. Ekainak 27-uztailek 29. Izen ematea zabalik: 943 591 704. Diruz lagundutakoak.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Gure txikiak hain jator hazten ari diren honetan... Zorionak! Norak zortzi ekainaren 17an eta Clarak dagoeneko bost martxoaren 15etik. Muxu pottoloak etxeko guztien partetik!! Muaaa.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aritz Irazu Romanek 3urte beteko ditu ekainaren 29an. Ondo pasa eta txokolatezko muxuak. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Primeran pasa eguna!! Nahiak ekainaren 24ean 9 urte beteko ditu. 9 muxu potolo, etxekoak Maite zaitugu.

URNIETA

Postontzia: Andoaingo Ipar Haizea plataforma

Andoain

"Azken egunetan bolo-bolo dabil Whatsappean PSMren -Madrideko PSOE- barne irizpideen kartela zeinean adierazten den errausketaren aurka daudela. Jendeak pentsa dezakeelako 'Madriden aurka eta Gipuzkoan alde? Nola ote?'. Adierazgarria da zalantzarik gabe, baina guretzat are adierazgarriagoa da 2015eko azaroaren 10ean Lasarte-Oriako Udala, PSE-EE buru dela, Zubietako erraustegiaren aurka azaldu zela ere.

Horren aurrean gure galdera zuzena da, 'eta Andoainen zer?'. Lasarte-Oriako PSE-EE erraustegiaren aurka agertu da eta zer gertatzen da, haiek kaltegarri ikusten dutena Andoaingo onuragarri ikusten dutela? Zein irizpideren arabera? Gauzak horrela, hurrengo osoko bilkuran mozioa aurkeztuko dugu Andoaingo PSE-EEk ere errausketari ezezkua eman diezaion. Herritarrei dei egiten diegu osoko bilkurara gertura daitezen. Ekainaren 22an da, 19:00etan.

Animazioz beteriko pintxo potea Andoainen



Ostegun honetan, ekainak 16, pintxo potea animatzen Gaisteiz-ko BraZZtet Mv taldea arituko da, kalez kale. Ekintza hori "Kale antzerkia Andoainen" izeneko programan sartuta dago. Musika doinuak Bastero plazan hasiko dira iluntzeko 18:45ean eta Kale Na-

gusian zehar Zumea plaza-raino joango dira. Haize-metalezko eta perkusio musika taldea da. Fusio eta musika modernoko piezak entzungo ditugu, esaterako: Michael Jackson, Elvis Presley, Aretha Franklin, Quincy Jones, Henry Mancini, Bon Jovi,...